

ttipi-ttapa

1990eko Urriak 11

47. zenbakia

dohain banatzen da



Hegohaizearekin batera
ehiztariak prest

FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak



Legia 42, Tfnoa: 63 03 77 BERA

Panasonic irrati bat



DONAMARIAKO BENTA

Jatetxea, Donamaria

Afari bat bi lagunentzat

MARI LUZ SPORT

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 BERA

Suony zapatilak

GOIKO
Argazkiak

Altzate 36, Tfnoa: 63 05 15 BERA

Argazki makina bat

Galdera: Igantziko Artzai Zakur Lehiaketan, nor gertatu da irabazle?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: *Frantxiskaren Saskia, ttipi-ttapa*, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

non-zer

- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 22 ERREPORTAIA:** "Etxalarko Usategiak, Eskopetak sareei gailendu"
Pello Apezetxea
- 24 ELKARRIZKETA:** "Artzaiak eta zakurrak: lankideak eta lagunak: Patxi Etxeberria, Jean Miura, Fermin Sein eta Joxe Urien-i Igantziko XI. Artzai zakur lehiaketa egina"
Patxi Larretxea
- 26 KIROLAK:**
Mattari, Roman.
- 28 OSASUNA:**
Nafarroako Osasun Mentaleko Taldea
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
- 30 MERKATU TTIKIA**
- 31 DENBORAPASA**
Enbido

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Kar-mele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petrarena, Olain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun 587039

Gartzain 580451

Oronotz-Mugaire 592024

Ituren 450183

Sunbilla 450283

Goizueta 514067

Igantzi 637755

Arantza 634131

Bera 630929 / 630036

Etxalar 635105

Urdazubi 599130

ANBULATORIOAK

Irun 630264 / 621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea 614444

Nafarroako ospitalea 251500

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 262700

Gurutze Gorria 226404

ANBULANTZIAK

Oitz 450242 / 450342

DYA

Lesaka (larrialdiak) (943) 464622

Elizondo (larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Lesaka 637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire 592044

GARRAIOAK

Bidasotarra 630279

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo 580730

Lesaka 637154

Bera 630104

ABERIAK:

Iberduero 450335 / 450336

Deialdiak

► **Arantzan**, urriaren 11an Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

► **Lesakan**, urriaren 5ean Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **Etxalarren**, urriaren 19an Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

► **Etxalarren**, urriaren 23an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

Ibilaldiak

► **Larun Mendi Taldea**:

• Urriaren 14ean Nafarroa Oinez-90 ekitaldira egingen du bere ateraldia; Lizarrara.

• Urriaren 21ean Etxalarko Usategietara.

Kontzertuak

► **Zubietan**, TTU-RRUTTAK taldearekin urriaren 13an.

► **Etxalarren**, KANKA eta IZADI taldeekin urriaren 20an.

Bestak

► **Gartzainen**, urriaren 11tik 15era ospatuko dituzte herriko bestak.

► **Etxalarren**, urriaren 21an, Usategietako Igandea. Arratsaldean EGAN taldearekin dantzaldia.

Botikak

• **Urriaren 12-13-14ean**, Lesaka eta F. Iturralde (Elizondo).

• **Urriaren 6-7an**, Arantza eta F. Lezaun (Elizondo).

Bota bertsoa**Manolo Arozena****Gaia: Ehiza****Doinua: Aita izana**

Sentimenduan hiru ardatzak jarri nahirikan aurrian gizonak ditun alde gaiztoak nago aipa beharrian ikusitzen dut kanpoan eta ikusitzen dut herrian goserik gabe janaren bila itsuraz estu larrian negargarria ehiztari hoiek nola dabilzan Urrian.

Puestora goizez iritsi dira nekeakin nahiko jota batzuk ehizari bijilatutzen besteak kuluxka bota hau neretzako ederki dator daunba bazterretik bota mekauden dios eta ostiak adar gainera igota behintzat usoa bizirik doa ez du askorik inporta.

AGENDA

Ikastaroak

YOGA

► Elizondon, Yoga ikastaroa Baztango Kirol Zerbitzuak antolatuturik.

Noiz: Astearte eta ortzegunero, arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara eta hiru hilabetez.

Non: Arizkunenea Kultur Etxean.

Apuntatzeko: Baztango Kirol Zerbitzua, Elizondoko Balleko Etxera (580006).

EUSKARA

► Elizondon eta Iturenen, AEK-k antolatuak. Maila guztiak eta Alfabetatzea.

Apuntatzeko: Deitu 581216 telefonora.


Gastronomia

USOAK SALTSAN

4 Lagunentzat

Osagaiak:

4 uso, 4 tipula, 3 azenario, baratxuri buru bat, tomate bat, erreineta sagar eder bat eta lau baso ardo beltz.



Luzio Zugarramurdik emana. Aterpe Jatetxea Arantza

Kazuela batetan usoak eta barazki guz-

tiak jartzen dira egiten eztiki-etztiki, ongi egin arte, erre gabe.

Ondoren, 4 baso ardoak bota, ardo agortu arte. Gero urez estali eta gatza bota norberaren gustora.

Ongi eginak daudean usoak alde batean utzi eta saltsarekin purea egin gainetik botatzeko.

Baserriko feria

Urriaren lehenengo asteko salneurriak:

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal

Extra.....525-540

1.koa.....490-520

2.koa.....400-500

Urruxak: 10 pzta. gehiago

Oharra: Prezio hauek 250-

300 Kg. kanalean dauzkaten aretzeentzako.

•Behia:

Haragitako behi ona: 400-

440Pzta./Kg. Kanal. Behi nabarra: 200-370 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(9-15 egun):

Pintoak: urruxak

20.000 eta Idixkoak 20-

30.000 Pzta. **Mestizoak:**

urruxak 25-33.000 eta idix-

koak 27-38.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.200pzta. **Zerri gizona** (95-100): 127-130 pzta./kilo bizirik. **Urdamak:** 70pzta./kilo bizirik.



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

GARE

Saneamenduak

Mobleak eta bainurako tresnak
Iturgintza eta kalefakzioa

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Irratia

Xorroxin Irratia

Bortzirietako eskole-
tan Urrian egingo dituz-
ten irratsaioen zerrenda:

- 8, 9, 10, 11an, Igantziko Eskolan.
- 15, 16, 17, 18, 19an, Berako Labiaga Ikastolan.
- 22, 23, 24, 25, 26an Berako Eskolan.

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13, 25: Oharrak, etab.
- 13, 30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.

Zinema

Donostiako zinemaldia dela eta...

Donostiako zinemaldia barrutik beti polemikoa izan da. 1952. urtean, bertako komertziantek batzuren ideia eta laguntzaz sortu zen. Gora-behera nahiko izan ondoren oraindik irauten du baina, azkeneko urte hauetako behe-rakada ez du gainditzen eta gero eta zokorago doa.

"A" kategoriko festibala bada ere, ez da kalitate-gatik, azpi-jokoagatik baizik.

Cannes, Venezia eta Berlin-eko festibalak ere "A" kategorikoak izan arren, bertzelako arrakasta izaten dute zinema munduan. Donostiara, sobran-te dauden filmak ekartzen dituzte, eta hauen artean bizpahiru espainolak. ia beti sari ederreren bat eramaten bait dute.

Orain dela urte batzuek inkompetentez betetako festibal honek "A" kate-



goria ez izateari botatzen zion errua eta egoera politikoari ere aunitzetan (nola ez). Aurten kaleko ixtilurik ez da izan, orduan, garbiago ikusi da festibal honen errurik haundienak non dauden: antolatzaileen artean.

Lehen saria Montxo Armendariz-en "Las cartas de Alou"ri eman diote. Baliteke ez oso filma ona izatea, baina bertze gehie-

nak askoz txarragoak izan dira. Bigarren saria Joel Coen-en "Miller's Crossing"i mafia eta gansterrezko Ipar Amerikar filmari.

Juradoa zalantzan ibili da bainan azkenean festibal antolatzaileak nahi dutena egin dute. Hiru edo lau momia ekarri dituzte egun hauetan Donostiara Festibala itxuraz jatzeko, azpitik dirua emanez.

Ez dugu bukatu behar "Zabaltegi"ri bere meritoa eman gabe. Hau da Festibalari kalitate pixka bat eman dion sekzio bakarra. Aurten Iran-eko zine berriak ikusi izan ahal ditugu. Ziur aski eta zoritxarrez, komertzialki ikusiko ez ditugun filmak dira. Horratx filma eta zuzendari on baten izenak: "Davandeh" Amir Naderirena.

MARIANO

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79


ARANTZA

IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

GOZOTEGI-JAZONE



Itzea 3, 630786 - BERA



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98. IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

Beran, "Lurraren Eguna" bere laugarren aldia beteko du aurten

Ardi gasna lehiaketa eta barazki eta fruitu erakusketa garatuko dira Bortziriak eskualde mailan

"Gure Txokoa" Elkar-teak antolatu dituen "Kultur Ihardunaldiak" en egitarauaren barruan kokatzen da urriaren 28an, igandea, egun guztian zehar Beran garatuko den "Lurraren Eguna".

Ihardunaldirako egitaraua

Igande goizeko 10etan emanen zaio hasiera gasna lehiaketari. Lehiaketaren oinarriak, 630314 Tfnoan. argituko dituzte. Aldi be-

rean, Bortziriak eskualde mailan ere, barazki eta fruitu erakusketa izanen da. Baita ere goizeko 10etan, Alzate karrikan artisau erakusketa zabalduko da arratsaldeko 2ak arte, ondoren, arratsaldeko 3,30etatik 7ak arte, berriro irekirik egonez. 5etan, Alzate plazan Otsagiko dantzarien emanaldia; 7etatik aintzinera Joselu Anaiak taldearen musika. Egun guztian, trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen.



"Argentinoen" bisitaldia

Argazkia, Lesakako Lamina-ziotara egin zuten ikustaldia- ren ondotik ateria da.

Ezaguna den bezala, 20 egunez izan ditugu gure artean, leku ezberdinak bisita- tuz eta hemen dituzten seni- tartekoak ikusiz bide batez.

Egun hauetan, egitarau estu bati jarraikiz, Euskal Herri gehienari bira egiteaz aparte, bestarako ere izan dute astia.



BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

NOIZ ARTE?

Eskutitz hau idatzi dut, eskopetaz armaturik mendira ateratzea gustatzen ez zaien guztiek irakur dezaten.

Bertze urte batez garaia ailegatu zaigu. Dagoeneko eskopeta erabiltzen dutenak mendia okupatzen hasi dira. Gure fauna basatiaren hiltzaileak beren jaialdia hasi dute. Gaur egun mendietako basa animaliek etsai aunitz dute: arboldien murrizketa, pozoiak, kontaminazio, suteak, etab. Hauen artean, zalantzarik gabe, eskopetaren "kirola" aipatu behar dugu. "Kirol" hau inguru hauetan (dena erran behar da) aski hedatua da eta praktikatzen den moduan erabat kaltegarria da Naturarentzako. Inork ez du kontrolatzen, inork ez du "toperik" paratzen, masifikatua da, dena libre dago. Gure mendien jaun eta jabe bihurtzen dira.

Eta guk, bitartean, zer egiten dugu? Ezer ez. Pasotaren papera betetzen dugu. Hori bai, tarteka pegatina edo txaparen bat eramaten dugu, gainera ekolojista izatea modan dago. Mingainaz denok gara Naturelezaren defendatzaileak; baina ez gara konturatzen ari basoko animaliak gero eta urriagoak direla. Batzuek goikoek moldatzeko afera dela pentsatuko dute. Oker daude, gure agintari eta politikariei ez bait zaie interesatzen. Batzuentzat "kirol" hau aberastasun iturria delakotz eta bertzeentzat "politikamente ez bait da rentablea" (badakizue botoak eta abar). Hauekin ezin dugu kontatu.

Noizbait ere Natura eta basanimalien bizitzaren defendatzaileen boza eskualde honetan aditzen hasi beharko da. Guk ere gauza izan behar dugu gure eskubideak aldarrikatzeko. Batu gaitezen. He-

rriz herri antola gaituzten, baina ez eskopeta erabiltzen dutenekin borrokan hasiteko, behar den tokietan presio egin eta negoziatzeko baizik.

Zuen erantzunen zai nago.



J.R. Amoros Oskoz
15.931.550

GARAILE ETA GARAITU GABEKO ARAZOA

Garaile eta garaitu gabeko arazoa hobe (sentikera) hauek iraun araziz nork hartzen du mesede?)

Leitzako ikastolakoak izandako ikasleak eta irakasleak eskolara etorri dira. Bertako euskal adarra bizkortu egin behar luke talde honen etorrerak. Aurreko "titi-

ttapa"n dionez: "Argi dago bide guztiak moztuta zeukalako hartu duela erabaki garratz hau" ikastolak. Egia.

Baina garaile eta garaituak esatea gauzak oso sinpleki ikustea da. Euskara ez da garaitua izan. Euskara, ikastolara hutsik mugatu dutenak bai sentituko dira garaituak.

1960.eko hamarkadan, euskera berpizteko, indartzeko eta orduan ez zeukan dimensio berri bat emanez sortu ziren oraingo ikastolak: euskara irakaskuntzan sartu zen. Leitzako ikastolak 1968. ean ekin zion lan honeri.

Baina beste ikastolak handitzen ziren bitartean, hemengoak ez zen behar haina egin (soziologoak aztertuko lukete zergatia) eta herriko haurren laurdena hartzen bazuen, beste hiru laurden, denak euskaldunak, hor zeuden eskolan gaztelaniaz hezitzen...

Ikastolak eman zuten lehendabiziko pausoa euskara irakaskuntzan sartzeko eta 1976. urtean eman zen hurrengo, ordu arte erdaldun zen eskolan euskal adarra (Deredua) sortuz.

Euskalzale guztientzat pozgarri behar luke euskarak bazter guztiak hartzea, gure hiri eta herrietako ekintza guztietara zabaltzea: irakaskuntza, kirola, komunikabideak, politika, zine, erligio, pornografia...

Orduan eta bakarririk orduan, normalizatuko litzateke euskeraren egoera. Har dezagun ba, garaitu eta garaile gabeko arazo bezela eta aldarrikatuz Leitzako ikastolak bere egin beharra bete duela ekin dezaiogun egoera berriari aurrera begiratz, euskara normalizaziora eraman arte.



Expe Aranibar

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BIDASOA


TAILERRA

Bidasoa 99

Tfnoa: 630 188 - BERA

“Bereziki Babesturiko” lurra birkalifikatu egin dute Herri-alde eta EAko Udalkideek

Familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko hartua izan da erabakia



Ezpondakobordara daraman bidearen ondoan kokaturik dago basoa



Eremua basoaren erdian aurkitzen da

ROMAN HARRIBILAGA

Aldarazketa burutzeko ahobatekotasuna lortu eta aurtengo martxoaren 6an Iruñeko Gobernuaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Zuzendaritzak egindako onarpenari bere “jabeturikoa” eman ondoren, Arau Subsidiarioak hautsi egin ditu Udaltzatzak.

Osoko bilkuran zeuden Herri-Aldeko hiru kide (alkatea barne) eta EAko bien aldeko botoekin, HBko hiruek aurka agertuz, Bereziki Babesturik kalifikatua zegoen Lur ez-hirigarri edo urbanizablea birkalifikatzeko hasierako erabakia hartu izan denean gertatu da Berako Arau

Subsidiarioen hausketa.

ERABAKIAREN AURREKOAK

Beratar batek, 1.200 m²ko eremuan familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko, Hirigintza Arauetan Bereziki babesturik ez-hirigarri bezala bildurik zegoen lurra, ez-hirigarri Orokorra edo Arrunta bezala birkalifikatua izan dadila eskatzerakoan sortu da egoera.

Aurkeztu dituen arrazoiketen arabera, “eremuak larre erabilera” omen dauka eta “zortzi urte dituzten arkazi zuhaitzez estalirik aurkitzen den balio gabekoa” omen delako egiten du eskaera jabeak.

Hori dela eta, Eusko Alkartasunakoak adierazitako guztiarekin erabat alde agertu dira, Herri-Aldeko Alkateak “prezidentetzat balio ez dezan” erranez, baiezkoa eman dio eskaerari. Beren aldetik, HBko kideek ezezkoa eman dute, “Arauen aldarazketa berriki onartua izan delako” eta “birkalifikapen hau Arauak desgitea” delaren ustean oinarrituz. Aldi berean, Berako Herri Batasunak, prentsara igorritako agiri batean “Juan Guerra kasuaren antzekoa” omen da erabaki hau. “Hirigintza Arau batzuen kolpaketa” gogorki salatu eta gero, “inola-ko kutunkeriarik gabe, denontzat berdinak” dire-

la eransten du. Akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hilaletzeko epean edozeinek egokiak uste dituen iradokizun edo zuzenketak aurkez ditzan.

EREMUAREN EZAUGARRIAK

Birkalifikatutako eremuak 1.200 m²ko azalera du eta arkazi, pinu, gaztain, gerezi eta haritzez, besteak beste osaturiko basoan aurkitzen da. Bestalde, Hirigintza Arauetan eskatzen diren baldintzen arabera, ez hirigarria den lurtean eraiki ahal izateko 3.000 m²ko guttienezko azalera derrigorrez eduki behar duela eremuak, edota 7.500 m² nekazaritzarako kalifitutakotan.

LESAKA

Partidu politikoak anpliazioari buruzko jarrerak azaltzen hasi

Laminaciones-ek bi nabe egiteko eskariari ezezkoa H.B.-k

AITOR AROZENA

Laminaciones de Lesaka-k Udalarai luzatu dion anpliazio eskariaren ondorioz, zenbait eztabaida sortzen ari da herrian. Aurreko alean Landazelaiak taldearen kanpainaren berri ematen bagenuen, oraingoan Lesakako HB-k azaldu du bere jarrera Lesakako herriari zuzendutako agiri batez. Bertan, Lesakako HBk bi nabe egiteko eskariari ezezko borobila adierazten du, alde batetik "Historikoki eta Artistikoki monumento bat den Konbentuaren zati nagusiaren desagertzea suposatzen duelako" eta bestetik, "entrepresak berak eskarian onartzen duen bezela, ez duelako bigarren nabe horren beharrik".



Lesakako konbentua

Hala ere, Lesakako HBn jarrera nabe bateko eskariaren aurrean "baiezko baldintzatua" izanen litzateke, Laminaciones de Lesaka-k hiru baldintza nagusi bete beharko litzuzkelarik.

Lehenengo baldintza, "lan egoerari irtenbidea ematea izanen litzateke,

lan eskariaren aurrean lesakarrei lehentasuna emanaz". Bigarren baldintza, kutsadura arazoaren konponketa izanen zen, ingurugiro araudia errespetatuz, herriak jasaten dituen keak, zaratak eta azido isurketen arazoa konpontzeko.


Azken baldintza,

"Konbentua eta Asiloaren artean dauden lurrak, entrepresak herriari eskeintzea Nafarroako Gobernu-ko adituek eremu horiei ezartzen dieten prezioan" izanen zen.

III. Dantzari Txiki Eguna

Irain Dantza Taldeak antolatuta, III Dantzari Txiki Eguna ospatuko da Urriak 21an, honako egitarau honekin. 10etan taldeei ongiatorria eta gosaria. 11,30etan meza Martin Deunaren Elizan. Ondoren, taldeak herriko kaleetatik desfilatuko dute beraien dantzak eskeiniz. Arratsaldeko 5,30etan, talde guztien partaidetzarekin jaialdia Herriko pilotalekuan.

Ekitaldi honekin, 89-90ko iharduera amaitutzat ematen dute, Irainekoek.



**GOIZUETA
KIROLAK**

**KIROLAK
MENDIRAKO ARTIKULUA**

Beheko Plaza 10 LESAKA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Beheko Plaza 8, LESAKA

SALABERRIA

Jatetxea

Tfnoa.: 63 52 52
ETXALAR



★ **KIXKUR** ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

**FONDA
XATURETXEA**

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

Dantza ikasketak hedatzen eta finkatzen ari dira

PELLO APEZETXEA

Duela bi urte arte, uztaila eta abuztu hilabetetan bakarrik entsaiatzen ziren, normalki, dantzak, herriko bestetako emanaldiari begira, noski. Orain, ordea, eskolako ikasturtearekin batera hasten dira, uztailan eta abuztuan entsaioaldi berezia burutzen delarik. Ikasturteko denborako entsaioak, kirol arduarekin ados jarritz eta eskolako irakasleen onespenez antolatuak daude, eskola beraren programan nolabait sartuak. Haur guzietan ez dute batean entsaiatzen, gelaka txandakaturik baizik, hiru taldeetan banatzen direlarik. Asteazken arratsaldero talde batek entsaiatzen du, ordu erdi batez.

Dantza taldearen ardu-



radun den Emma Sanzberrok dionez, dantza ikasteak badu garrantzia. Dantzak musikarekiko dituen loturak hagituz eskuak direnez, dantzak ikastea, oinarritzko musika hezkuntza garatzen ari dira haurrak. Ahantzi gabe, bertzelde, euren gorputzaren atalen arteko koordinazioa lantzen dutela horrela.

Ikastola itxi dute

Hamalau urtez Etxalarako haurren lehen ikasketak pausoak euskaraz bideratu ahal izatea eman duen ikastola, itxi egin dute. Irailaren 30ean burututako Batzar Nagusirako deian Ikastolako Batzordeak horrela zioen: "Nafar Gobernuak orain arte emaiten zuen diru laguntza emaitetik utzi duelako..."

batzarkideek ikusten dugun irtenbide bakarra, ikastola eta eskola publikoaren arteko fusioa da". "...Fusio honetan Nafarroako Gobernuak egiten duen eskeintza, ikastolan dagoen andereñoa eskola publikoko eskolaurreko gelara pasatzearena da".

Horrela eskatu bazi-tzaion ere, Nafarroako Ikastolen Elkarteko idazkaria ez zen agertu Batzar-rrera.

21ean Usategietako Igandea

Usategiak ikusteko aukeraz gain, honako bertze ekitaldi hauek ere izanen ditugu: 12,30etan Lesakako musika-banda; 5,30etan Ortzadar taldearen dantza saioa eta ondotik EGANekin dantzaldia. Plazako ostatua, Euskal Kulturaren Alde.

Irratsaioak Eskolako haurren eskutik

Horretarako tresneria Xorroxin Irratiak jarri zuen

JON LARRETXEA

Urriaren 1, 2, 3, 4 eta 5ean izan genuen irratsaio ederrak dastatzerik eskolako umeen eskutik. Aipaturiko aste honetan, goize-

ko 10etatik 12etara, eman-kizun ederrak egin zituzten. Honetarako tresneria Xorroxin Irratiak utzi zien.

Elkar hizketak, albisteak, txisteak, bertso zaha-

rrak, abestiak, musika... denetatik entzuteko parada izan genuen egun hoietan. Benetan ekintza polita eta txalogarria, animo beste baterako eta zorionak gutziei.

Berrikuntzak eskolan

Ikasturte berria hasia dugu, ez nolahi gainera aurreko albistean garbi (bertze aldean segitzen du)



azaltzen denez. Aurten-goan 6 haur berri hasi eta maisu berri bat ere etorri zaigu: Elena Aleman Amaiurtarra.

Aurtengoan ere zenbait obra egin beharrean aurkitu da Udala, haurtxoak ikasteko kondizio hobentan aurki daitezten.

Gastu haundiena eskolaurreko gelan egin da. Bertan, zokaloa buelta guztian eta zolean kortxo espeziala ipini dute, hezetasuna ez sartzen uzteko helburuarekin, eta bide batez erran beharra dago hagitz polita eta goxoa gelditzen dela. Komunitan ere plataforma txiki batzu jarri dituzte, txikiak errexago molda daite-



zen. Guztira, miloi bat pasatuxea gastatu da, honen % 65a Diputazioaren laguntzarekin.

Zabor bilketaren arazoak

Zaborra biltzeko plan-

gintza zela eta, berriro errebisatzea eskatu du Udalak, plangintza horren arabera enbreatutako bidetik ez baitzen ateratzen zaborren kamioia. Hau da, Otsarraraino iritsiko zen eta Bordalarrea eta Eguz-

kialdea auzoak San Jose-ra atera beharko zuten zaborra. Baina Udalak, beste auzoetara ere, gutxienez zenbait puntutara, sartzea nahi du.

Errandonea eta Agesta final erdietara

Errandonea eta Ander Agesta aurrera darraite Nafarroan ospatzen ari den txapelketan. Hurrengoan aurrefinalak dituzte, goizuetarren aurka seguraski, arerio gogorrek hauexek.

Txapelketa honetatik ateratzen dira gero GRAVN-en Nafarroa ordezkatzeko duten pilotariak.

IGANTZI

Gero eta irakasle guttiago

Aurrerantzean, Igantzi, Arantza eta Etxalar irakasle laguntzailerik gabe

OSKAR TXOPERENA

Oraindik harriturik bageunden irakasle bat galtzen genuela jakin ondoren, oraingoan hiru herritako (Igantzi, Arantza eta Etxalarreko) geneukan irakaslea ere kendu digute. Ekainean inspektorearekin bilera egin zenean, irakasle honek, Igantzin egunean bi ordu pasatuko zituela agindu zuen, baina jakina, agintzea erraza da, betetzea ez berriz.

Honi buruz bilera bat egin zen eskoletan guraso, irakasle eta Udalaren ar-

tean eta zera erabaki zen: hiru Udaletxeek bilera bat eskatzea Felones-i, irakasle laguntzaile hau berriro

paratu dezaten. Gai hau alde batera utziaz, bilera horretan ere eskola denboran paratu beharreko su-

kaldeaz mintzatu zen. Azkenean, Biltoki-ri lokala utzi zezan eskatzea erabaki zen eta zerbitzu honetan interesatuak daudenak biltzea ere bai, zenbat haur izanen diren jakiteko.



“Transaccion de Comunales” dela-koa aurrera doa

Urriaren 3an dauden datoen arauera hagitz aintzineratuak daude kome-nio honen onarpenak. Hi-

(hertze aldean segitzen du)



labete bat falta delarik onarpenak sinatzeko epea bukatzeko, hauexek dira iritsi zaizkigun datuak: 70 izan dira deituak dagoeneko. Hauetatik 55ek eman dute baiezkoa edo sinatu dute, 15ek denbora dagoenez zenbait kontsulta egin behar dituztela erran dute, ezezko borobila hiru lagu-

nek bakarrik eman dutelarik. Datu positiboak, beraz, arazo honen konponbidean.

Argi berria martxan

Besta bezperan martxan paratu zen argi berria eta erraten dutenez jendea nahiko gustora gelditu

omen da instalazio berriarekin. Berri hau idazterakoan, martxan paratzeko zegoen Bentatakoa, baina berdintsu geldituko dela pentsatzen dugu.

Arazo batzu izan badira ere, kablea hemendik edo handik eramaterakoan, zorionez guztiak gainditu dira. Hala ere,

bestetan bazirudien bazi-rela zenbaitzuk guztiz ados ez zeudenak argiarekin. Izugarritzko txikizioak egin dituzte faroletan, batez ere Sarrola aldekoetan. Ez gara urruti ibiliko, zenbaitzuk jende tartean ibili beharrean ikuletan beharko luketela erraten dugunean.


ZUBIETA

JUAINAS

Zenbait momentuetan neri eta nere moduko korrespontsalei "berria" zer den jakitea gustatuko litzaiaguke, hau da, batere gogorik gabe ari naizela gaur... Enpin, enpin! konpromisuak direla eta... Eskerrak, dena den, ahule-ri hau nerea bakarrik dela, zeren zubietarrak sasoian daude, tartean aposturen bat baldin badago, bederen...

Mendaurreko igoera

Igoera hau aixegia dela eta, Fermineko "mutikoak" 50 kiloz zamaturik egin zuten. Aposturako lau ordu bazituzten ere bit' erdiekin nahikoa izan



Non utzi ote dut nik R-12a?

zuten. Boltsa bete, afariz sendotu, eta tira, hurren arte... Lastima argitu baino lehen atera zirela plazatik, argazkia ateratzerik ez bait genuen izan. Gaueko inspirazioa behar dutela dirudi, ilargiarena, sokatirako entrenamenduak gauez egiten dituzte baita

ere... Sokatik tira tiraka beste ekipo baten kontra aritu beharrean Inazio Mariren R-12a eraman zuten eskolatik kanposanturaino, buila mundiala montatuz... Eta gaueko ekintzekin segituz, gaupasa aurrera doala diote, hori bai, Turruttak izan

beharrean Almen izanen omen da taldea. Egunaz ere zerbait antolatuko omen da, baina ez dakigu ez zer eta ez noiz. "Zubietan, beti azken orduetan" errefrauren agindua betetzen bait da.

Ibarneko bidea

Azken orduetan ari dira kontzejal baten etxe-ko bidea konpontzen. Udala aldatu baino lehen, bada ez bada ere! Hau tristura! Bidearena ez, ikaragarri ongi etorriko bait zait, han entzuten dena baizik. Aurrekoan esaten nuen, Patziku eta Juanek Joxe Mariri euskaraz solastuko ziotela eta egun osoan erderaz jo eta ke ari dira! Antesko Inexak badu transmisio kanpaina non egin!

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

ITUREN

Euskara ikastaroak AEKren eskutik

IBAN ISASI

Urriaren 2an arratsaldeko 6ak aldera, AEKko zenbait ordezkari etorri zen Iturenera bertan zenbait gaztek EGA titulua atera nahi bait dute. Alfabetatze ikastaroa izanen da eta honetara, inguruko herrietakoak ere apunta daitezke.

Ikastaroa urriaren 8an hasi zen baina hurrengo 2 asteetan ere apunta daitezke. Klaseak Iturengo eskoletan emanen dira eta ordua arratsaldeko 5etatik 7etara, astelehenetatik ortzegunera. Matrikula prezioa bertan emanen da.

Joaldunen eguna

Goizean euria egin bazuen ere, arratsalde parterako eguraldiak aldatu egin zuen. Irailaren



29an ospatutako bestan, Joaldunekin batera Ituren eta Sunbillako trikitilariak atera ziren.

Eguerdi aldera, aizkora apostua Zubietarrek (Loiarte eta Mindegia) Iturendarrei (Gorosterrazu

eta Andiarena) irabazi zieten. Ondoren, arpanan, Iturendarrek irabazi zuten. Honekin jarraituz, koskorrak biltzen ere ibili ziren (iparraldeko 2 neska eta herriko Maika Ariztegi eta Josu Azpirozen aurka).

Goizeko ekitaldeekin bukatzeko Lizaso eta Azpillaga aritu ziren bertotan. Akabatzeko Epelde eta Berasategi trikitilariak jo zuten.

Bazkarian 100en bat lagun elkartu ziren Herriko Etxearen erabilera ugariko gelan. Arratsaldez, dantzaldia egon zen Udaletxeko arkupeetan eta honekin umore honez, urte bat gehiagoz Joaldunen eguna bukatu zen.

Gudari eguna

Irailaren 27an, ortzeguna, 30-40ren lagun elkartu ziren euskal gudariari omenaldia egin zitzaien kalejiran. Herri osoan zehar txistu eta tanborra soinuaz ibili ondoren Eusko Gudariak kantatu zen Herriko Plazan.

MALERREKA

Oinarrizko zerbitzu sozialak etxeetara hedatuko du bere asistentzia

Horretarako bi langile ariko dira etxez etxe

PATXI PETRIRENA

Malerrekako osasun zentruak, berriki zabaldu-tako ohar baten bidez jakinarazten du bere adarraz den "servicio social de

base" delakoak zerbitzu berri bat eskeiniko duela hemendik aintziner. Hain zuzen ere, berez ibili edo osasun zentroraino mugitzeko zailtasunak dituztenak beren bizilekuan ber-

tan atenditzea. Aukera hori izanen dute 65 urtez goitikoek, ezindu edo elbarriek, arazo bereziak dituzten familiek eta beren kabuz mugitzeko zailtasuna duten pertsonak.

Honen helburua zera da, nor bere etxean bizi ahal izatea nahiz eta arazo hauetako bat izan, eta

(bertze aldean segitzen du)



horrela bizi maila hobetza.

Asistentzia honen barranean eskeintzen diren laguntzak maila ezberdinetakoak dira:

- **Laguntza soziala:** informazioa ematea, orientatzea eta gestio ezberdinak erraztea.

- **Mediku laguntza:** osasunaren segimendu orokorra, elikadura edo janariari dagokiona, botiken kontrola, eta rehabilitazioa.

- **Higienea:** gorputzaren garbiketa, ohatzea aldatu eta moldatzea.

- **Etxe lanak:** etxearen garbiketa, arropa pres-taketa, erosketak.

Zerbitzu hau munizipala eta dohainekoa da, eta etxez etxe ibiliko diren "familiako langile" deiturikoen eskutik emanen da.

Informazio gehiago edo zalantzaren bat argitu nahi duenak, Malerrekako



osasun zentrura dei egin dezake, 450300 telefono-

ra, edo bertara joanez asistente sozialaz galdetu.

GOIZUETA

Euskaltegian matrikulatzeko epea zabalik

Elkarteko bazkideek matrikula ordaintzeko laguntza izanen dute

ESTEBAN AROZENA

Goizuetako Euskara Batzordeak iaz sortu zuen euskaltegiak, aurten ere urritik ekaina bitarteko ikastaroak antolatu ditu, matrikulatzeko epea zabalik dagoelarik jadanik.

Joan den urteean alfabetatze klaseak bakarrik eman baziren ere (24 lagunek parte hartu zuten) aurten eskeintza hori zabaldu da eta euskaldundu edo EGA titulua atera nahi dutenek ere beraien izena eman dezakete. Ordutegiari buruz esan beharra dago, interesatu guztiak bildu eta gehienera ongien egokitzen zaien orduetan jarriko direla klaseak. Hala ere ziurtatu



daiteke EGA ikastaroa larunbat goizetan emango dela, institutoetan, unibertsitatean eta abar ikasten ari direnei erraztasun guztiak ematearren.

Goizuetako gurasoen Elkarteari ere, eta euskararen transmisio kanpainaren barranean gaudela,

gurasoak euskaldundu edo alfabetzea garrantzizkoa iruditu zaio, eskolako haurrekin harreman egokiak izateko. Hori kontutan harturik, euskaltegian apuntatzen diren Elkarteko bazkideek matrikula ordaintzeko laguntza bat izango dute. Dena dela,

lehengo urtean bezala aurten ere oso merke aterako omen dira ikastaro hauek, Euskaltegiko zuzendariak esan zigunez.

Azkenik esan, inolako arazorik sortzen ez bada urriaren 15ean hasiko direla klaseak.

BAZTAN

55 erakunde Xorroxin Irratiari lizentzia ematearen alde

Nafarroako Gobernuak "sine die" atzeratu du lizentzien adjudikazioa

MAÑONE

Denetara 55 dira, kultur eta kirol taldeak, elkar-teak, alderdi politikoak eta Udalak, FM lizentzia Xorroxin Irratiari ematearen alde azaldu direnak. *ttipi-ttapa* zenbait baztandar ezagunen eritziak jaso ditu.

Mikel Iriarterendako, Baztandarren Biltzarra Elkarteko Lehendakaria, "Xorroxinek lan garrantzitsua egin du Baztango kulturaren alde, baita ere, bere elkartasuna adierazi du bailaran lanean aritzen garen bertze kirol edo kultur elkar-teekin".

Felipe Ganboa, Arkupeak Jubilatatu Elkarteko zuzendariaren eritzi-z, "Xorroxinek kultur lan gogorra egin du eta bertze elkar-teei ere lagunduz, horien artean gurea; hori eskertzekoa da. Erreka guzian emititzeko proiektua, arront beharrezkoa eta garrantzitsua iruditzen zaigu".

Mariano Izeta euskaltzaleak uste du "lan



sozial handia egiten duela. Arrakasta gogorra du jendearen artean, baserrietan esperoan egoten dira Xorroxineko emisioei, zer gertatzen den jakiteko. Nik ahal dudan neurrian laguntzen dut, zenbait urte daramat Elizondoko korrespontsal gisa".

Jose Urrotz, Elizondoko Lanbide Eskolaren zuzendariarentzat, "Xorroxin Irratiak euskara landu, finkatu eta azkartu du. Kultur mailan, beharrezko zutabea da".

Martin Apezetxea, Oronotz-Mugaireko jura-doaren ustez, "Xorroxinen bitartez, bailarako herrien arteko harremanak sendotu dira, horrela leku bakoitzeko eguneroko bizia ezagutuz".

Baztango zinegotzia (EA) den **Remigio Liza-soainek**, aipatzen digu "Xorroxini esker gure eritziak adierazi ditzazkegu, boterearen aparte arrunt zaila baita. Edozein talde edo erakunde ofizialek parte har dezake eta hori

baikorra da. Badira zenbait talde kanpoan geratu direnak bere borondatez".

Baztango Udalean HBko zinegotzia den **Martin Garderen** ustetan, "Xorroxin herri-irradi bat da, irekia hasieratik. Bere egitekoa, euskaraz izateagatik zenbait talde kanpoan gelditu dira parte hartu nahi ez dutelako. Niretzat arras garrantzitsua komunikabide hau bailaran izatea, Baztanen 2.500 baserri daude eta Xorroxinek baztandar gizarteari erantzun erreala ematen jakin du, emisoran lanean aritzen direnak hemengoan bait dira eta errealitate hori ezagutzen dute".

PSN-PSOeko Baztango batzordearen eritzi-z "berek jarraitzea oso ongi iduritzen zaigu, urte aunitz daramate lan hortan. Informazio ona eta ezberdina ematen dute. Ongi ikusten dugu euskarari lehentasuna ematea baina herri-irratia denez, saioen bat erdaraz egitea egokia izanen litzateke, %10-15a".

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tñoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiaín

SARA - LAPURDI

Aurtengoan iaz baino turista guttiago

Zabor-bilketa ez da auzo guztietara iristen

ALIZIA OLAIZOLA

Urdazubin uda hontan bisitari aunitz izan ditugu. Dantxarineariko bentetan ere kanpotarrak izan dituzte, baina aintzineko urteetan baino guttiago eta beranduago etorri direla erran behar, lehen Uztailan etortzen baziren ere aurtengoan Abuztu aldean etorri bait dira.

Dantxarineariko kanpalekua ere bete bete izan dugu Abuztuko hilabetean, espainolak frantsesak baino gehiago egon direlarik.

Aurtengoan ere moztu ziguten ura, eta uraren



eskas honek kalte handia egin dio gure lurri. Hainbeste egun euririk egin gabe egonik nekazariak gaizki ibili dira belarra ez

baitzen nahi adina etortzen.

Bide txarrak direla eta zabor bilketa ez da auzoetara iristen

Irailetik aurrera Senpereko elkarte bat hasi da Urdazubiko zaborrak biltzen eta horregatik jarri dituzte zaborrontzi berri batzuk. Baina auzo gehienetan bideak arrunt gaizki daude eta horregatik ez dira haraino joaten.

Hau dela eta, Iribere, Lanbibar eta Larraintako auzotarrak ez daude kontent eta espero dugu bide horiek antolatzea, ordua delakoz.

Bestalde, aurtenguzuten gasna lantegi bat Etxelekuan (Alkerdin) eta gasna guztiak saldu dituzte uda hontan.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

INAXIO Tailerra

Moto salmenta
eta konponketa


Tfnoa: 452292 - IRURITA



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 00 54
Doneztebe

BERA:

- Eztegarra Pasealekuan, 60m²ko apartamentu bat moldatzeko.. Astzensorearekin. 4.600.000 Pzta.
- 90m²ko pisu bat Eztegaran, sukaldea ekipaturik eta astzensorea 7.200.000 Pzta

ETXALAR:

- Estreinatuta gabeko pisua. Okasiokoa. 7.000.000 Pzta.
- 90m²koa, sukalde ekipatua, propano kalefakzioa, ganbara eta garajea. 7.200.000 Pzta

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentzurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



FOTO ZALDUA

ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

“Kurtsoaren hasiera arazorik gabe: eskola bateko eta besteko neska- mutilak erraz elkartu dira” (P. Irurtia)

444 euskarazkoan eta 105 erderazkoan daude

ANTTON

Hamabost egunez motorrak berotu ondoren, goizetik bakarrik joanez, dagoeneko goiz eta arratsaldez hasiak dira klaseak, herriko eskola bakarrean. Bi eskolen bateratzea goitik behera eta bortxan egin izan denez, bazegoen halako kezka pixko bat lehenengo pausuari. Prontxio Irurtia dago aurten eskolan zuzendari, eta berak esaten digunez: “ Haurren artean gozoa izan da fusioa, ikastolatik etorritakoak eta eskolako neska-mutikoak erraz elkartu dira. Maila hortan, problemarik gabe izan da kurtsoaren hasiera”.

Leitzeko eskolak aurten 549 ikasle izanen ditu, horietatik 105 erderazko adarran ariko dira, eta 444 euskarazkoan. Eskolak 40 irakasle ditu, kirol maixua eta psikologoa ere barru.

Mendi ibilaldiak

Udazkenean sartuak, eta behin Lekunberriko pestak pasa ezker, berriro ere mendi ibilaldiak antolatzeari ekin asmo dute Aurrera eta Guratz-Mendiko arduradunek. Badirudi, gainera, indar-



Antton

berritu nahi direla igandetako irteera hauek.

Istilu giroan bizi gara

Mendi larreak galdetzea eta itxituen soka luzea da. Orain gertatutakoa hau izan da laburki: Udaltxean galdera bat (beste galdera batzuen artean) egin zitzaioela alkateari, itxituen istiluaz, herritar batzuren izenak kuartelean eman zirelako, pruebarik gabe. Handik aurrera, giroa berotzen joan zen, hitz gogorrak eta irainak entzun ziren, eta azkenik, alkateak atortatik hartu zuen kontzejal bat eta muturreko bat eman nahi izan zion. Eskerrik beste kontzejalek eta idaz-

kari berak geldiarazi zutela. Baina gertakizun itxusi hau herri honek bizi duen tentsio egoeraren ispilu besterik ez da. Eta gerra txiki honek aurrera darrai, familien arteko nahaspila eta atsekabea

ELAk 11 eta LABek 10, SARRION

Lehenengo astean eginko hauteskunde sindikalen ondorioz, ELA sindikatuak 11 ordezkari eta LAB sindikatuak 10 izanen dituzte SARRIO-Leitzako Papelerako Komite berrian.

Hauteskunde hauetan LABek bi ordezkari irabazi ditu eta ELAk bi galdu.

W ttipi-flash

areagotuz.

•**Egoitza berria** bukatuta dauka jadanik Aurrera Elkarteak, baina inaugurazioa atzeratu egin da.

•**Zerga berriak** laister pasatzekoak ditu Udalak, zaborra edo basurarenatik. Lokala industrialak: bost mila pezeta eta piku, eta kaleko etxe biritza bakoitzak: lau mila pezeta eta piku ordainduko dituzte.

•**“Plazaola” Trenbidea** berreskuratzeko Diputazioak atera berri duen proiektuak emanen du zer esanik leitzarren artean ere.

“Fermintxoren koralak” jende mordoska bildu zuen

MARGARI eta KORO

“Ronda de Otoño” delakoak antolatuta herriko elizan jende mordoska bildu zen Zangotzako “Nora” korala aditzeko.

Eta Zugarramurdik herri kantariaren fama duenean badaki halakoak estimatzen, jendea gustu gustura egon baitzen ordu bat eskaseko ekitaldiak iraun zuen bitartean eta azkenean kantariak 2 minututako txaloak jaso zituzten. Esan behar ekin-tza honek bazuela bere “koxka” ere: “Nora” korallaren zuzendaria Fermin Iriarte dugu, herriko seme bat, eta honek egiten zuen Zuamurdiar bakoitzak zer-bait berea bezala ikustea talde hau. Ia ez zen “Nora” korala, “Fermin-



Txalapartari berriak

txoren korala baizik.

Txalapartari berriak herrian

Orain baditugu txalapartariak herrian eta honako hauek dira: Alfredo, Franzisko eta Elena. Iruñeako “Ortzadar” taldearekin ikasi dute jotzen, egunero pasatzen dituzte beren orduak entrenatzen

eta gero eta hobekiago jotzen ari dira. Zuen herrietan entzun nahi badituzte deitu telefono hontara: 59 90 83.

Haizegoarekin batera ehiztariak prest

Erraten dute haizegoa atso-haizea dela, baina

guk uste dugu gizonak direla aunitzez arrotuago. Orain udazkenean usohiza heldu da eta denak erotuta dabilta beren eskopetak garbitzen, kartutxoak erosten eta norat joan behar duten hautatzen. Seguraski, bertze urteetan bezala betiko lekue-tara joanen dira azkenean: batzuek Etxalarra, bertzeak Atxuelara eta bertze batzuk Eskisaroiko lepora.

Emakumeak etxean geldituko gara zartaina eskutan usoen esperoan (ekartzen badituzte).

Horrela bada, suerte ona ihiztari guztieri.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK



ARROPA DENDA



**CERVANTES
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Lara

MUSIKA DENDA

ZERBITZU
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guztiak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA

Euskal dantza kurtsoak

OLAIN ELKARTEA

Aurten ere ZAZPIAK BAT elkarteak bere gain hartzen du Euskal dantzen erakaskuntza.

Bai haurrentzat, sei urtetarik goiti bai adinekoentzat, kurtso hauek iraganen dira "Gazteen Etxean" deitu lekuan. Gainera, bertze talde baten osatzeko jende aski balinbada, kurtsoak arratsez ere eman litaizke. Izen emaitzak Urriaren 6an egingen dira, baina berantiarrek larunbat arratsalde guztiz Gazteen etxean izenak emaiten ahalko dituzte 4etarik goiti. Xehetasun gehiagoren jakiteko deitu zenbaki hauetara: 59 54 23 10 (Murielle Chapartegui) edo 59 54 25 11 (Sophie Elizalde).

Urte osoarentzat berrogoi ta hamar libera ordaindu beharko dira. Agian



neska eta mutil asko hurbilduko dira guregana, euskal ohidura zahar hunen berbizarazteko asmoarekin.

Sarako bestak

Beti bezala, bestak arrakastatsuak izan dira, erran behar da bazela zer entzun eta zer ikusi frango: ahate joko, indar joko,

pilota partida, azienden primak, joaldunak, gaiteroak, txarangak, kantaldiak, bertsulariak, dantzaldiak...

Ahalik aipamen berezi bat merezi du Sarako Gazteek eskaini antzerkiak. Hunen gaia Sorgintza, Akelarrea zen. Eskerak gazteeri, zuen izpiri-

tu asmatzaile finarekin ezin hobeki landurik aurkeztu duzuelakotz 16garren mendean usu bizitzen zen giroa. Bukatzeko ez dezagun ahantz besta igandez etorri zirela Txirrindulariak: "Euskarak batzen gaitu" kanpainaren barnean kokatzen zen ekinza bat zen.



SANTU GUZIETARAKO ESKEINTZA BEREZIA
Mota guzietako loreak
Zentroak, Sortak, koroiak, e.a

Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen
Aurrekontua eskatu konpromisorik gabe

Bittiria karrika, Tfnoa: 63 74 94 - **LESAKA**

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

Rafa Pinturak

PINTURA DEKORATIBOA

Presupuestoak konpromisorik gabe
Txukunketetz pintorea arduratzen da
Legia 48, Tfnoa: 63 07 26 - **BERA**

EZKONTZAK

Justino Rojo Antolin eta **Corpus Txoperena Matxikote**, Orereta eta Igantzikoa, irailaren 8an.

Bonnetaud Pascal Robert eta **Etxebeste Christiane**, Sarakoak, irailaren 1ean.

Dulau Jacques Jean eta **Zubietta Mari Thérèse**, Sarakoak, irailaren 22an.

Libier Patrick eta **Antz Isabelle Angèle**, Sarakoak, urriaren 6an.

Esteban Indaburu eta **Pakita Altzuguren**, Etxalarkoak, urriaren 6an.

Jose Jabier Gago Agesta eta **Gema Balda Telletxea**, Sunbilla eta Ezkurrakoa, irailaren 22an.

Salbador Lizasoain Adanza eta **Mamen Uterga Ezkurra**, Elizondo eta Doneztebekoa, irailaren 15ean.

Bernardo SanMiguel Altzugarai eta **Esther Eskudero Apezetxea**, Doneztebe eta Goizuetakoa, irailaren 29an.

Agustin San Miguel Azpiroz eta **Nati Mitxelena Bazterrika**, Doneztebe eta Sunbilla, irailaren 30ean.

Edurne Migeltorena Ariztegi eta **Jose Jabier Otxandorena Mayora**, Doneztebe eta Almandozkoa, irailaren 29an.

Mari Mar Goñi Orbegozo eta **Andoni Artola**, Donamaria eta Errenterikoa, irailaren 22an.

Pablo Garziarena Juanena eta **Irene Hualde Zabaleta**, Doneztebe eta Oronotz-Mugairekoa, irailaren 15ean.

JAIOTZAK

Indaburu Iñaki, Saran, irailaren 10ean.

Joana Estanga Urroz, Beintza-Labaingoa, irailaren 23an.

HERIOTZAK

Silveria Aranibar Diaz, Beran, irailaren 19an, 82 urte.


Rosario Irazoki Dorronsoro, Beran, irailaren 24ean, 78 urte.

Migel Lasaga, Iturenen, irailaren 28an, 77 urte.

Telletxea Gratien, Saran, irailaren 13an, 44 urte.

Larzabal Jean, Saran, irailaren 3an, 91 urte.

Toribio Sagardia Altzugarai, Sunbillan, irailaren 4ean, 30 urte.



Etxalarko Usategiak

Eskopetak sareei gailendu

Mendia, gauaren jauntzi beltza erantzi eta estalki kolorezkoaz apaintzen ari da. Isilik, beti bezala. Eta batbatean, tuu!, korneta soina: usoak heldu dira, Sara aldetik. Usazaleek oihu: u! u! u!, hor!, hor! Zatar zuriak inarrosi han, makilak bota hemen. Usoek behehirantz jo dute, eta mendi gaina gaindizterakoan, lurretik hurbil, sareak ustekabean erori eta batzu azpian preso gelditu dira. Bertzeek hegoaldera bizkor jo dute, baina sareak eroritakoan bigarren korneta hotsa entzutean, ehizturiek alde guzietatik tiroka eraso dituzte. Hala ere, gehienak ihes egitea lortu dute. Etxalarren, edozein egunetako gertakaria da hau, udazkenean.

Usoa, gehien bat, eguna argitzetik hamarrak arte etortzen da. Eguerdi aldean ere, noizbehinka bai, etorrera hori ezin hobea delarik usazaleentzat (sarezko ehiza langileentzat): ehiztaria, aspertuta, joana dela ordurako, eta haizerik ez. Eguraldi garbi eta fina da egokiena, ipar-ekialdeko haizeak jotzen duenean. Baina usoak ez dira nolana ni etortzen, ezta ere bere kasa sareetan sartzen. Usoak ekarri eta sarrerazi egiten dituzte. Horregatik, sareez eta sare erabiltzaileez gain, bertze tresnak eta bertze jendek badu zeregina usategietako ehiza honetan.

Sara aldetik datorren usoak pasabide zabala aurkitzen du bere aintzinean: Lizarieta, Txorilepo, Gaztainlepo, bi kilometrotako zabalduria Iarmendi mendian. Sareetan usoa sarrerazi nahi bada, aunitz lekutatik bul-

tzatu behar zaio, bertze bidetatik joan ez dadin. Zatarrak, makilak, turuta edo korneta eta txistua: hara horretarako erabiltzen diren tresnak. Zatarra, makila bati jotutako zapia, zuria eta luze samarra da; eta eskuz inarrosiz, kolorea eta zaratagatik usoa izutu eta bertze aldera bideratzen du. Makilak (paletak), altza zurez egina eta kisuz zuritua, usoa behearazi egiten du, mendi gainera iristerakoan sare gainera igaro ez dadin. Ping-pong palaren antzekoa, miru edo bertze hegazti harrapariren irudia hartzen dio usoak makila honi eta ihes egiten du, baina behehirantz. Ikusteko nahiz makilak botatzeko, metro batzu goitiagotik lan egiteak badu abantaila. Horretarako dira trepak, lau, 15-20 metro altuerakoak. Hori dena zuzentzen eta bideratzen, sareak bota eta usoak bildu ere egin behar direlarik, hamahiru gizon aritzen dira.

Zenbat uso harrapatzen da sareetan?

Paperetatik azken bi mendetako berri dugu, beraietan gorabehera handiak ageri zaizkigularik. Mende honi dagokionez, lehen urteetan 250-350 dozenetara ailegatzen bazen, 1918an 1.000 dozena izan ziren, ondoko urteetan, 1955a arte 1.400, 1.600 dozenatakoak noiznahi zirela. 1960.etik hona 200 dozenatik behiti ibili da, banazbertze.

Ikuspegia zabalduz, sarezo ehizaren urrimena gero eta nabarmenago doala dirudi leku guztietan. Euskal Herrian diharduten hamar Usategietan, 1975. urtean 38.100 uso harrapatu zituzten denetara. 1977.ean, 19.056, eta ondoko urtean, 15.561 uso.

Etxalar eta Sara: bi herrien arteko harremanak

Ezin dugu ahantzi, Etxalarko usategiez ari garelarik, sareaz aparteko tresneria eta lanbide gehiena sarako dermioetan burutzen dela. Sare bidezko ehizan, ehiza horren salmentan, etabar, etxalartarrek nahiz saratarrek, biek zeukaten eta daukate zerrana. Horregatik, bi herriek edota bi herritakoek nahiago bada, elkarrekin konpondu beharren nahitanahiezkoa daukate, Usategietan ehizatuko bada. Bi herri dira, ordea, bi estatuetan kokatuak gainera eta



estatu arteko ohi diren mugaz bereziak; bi jende talde, eritzi desberdinak, interes ekonomikoak ere tartekatzen direlarik. Harritzekoa da elkarren artean zenbait gatazka noiz edo noiz sortzea? Banazbertze, halere, bi herrien arteko harremanen giroak maila ona izan duela baieztu dezakegu, ezagutzen dugunez.

Eskopeta ehiztariak

Sarezko ehiza partikularren esku dagoen bezala, eskopetaz ehizatzen duena

Udalaren menean aritzen da, tirozko ehiza pos-

tuak Udalak markatzen eta enkantean egiten ditueneguz. Ez da ez, beti horrela izan du, 1.949 urteaz geroztik baizik. Eta 1.932 urtera arte ez zuen herriak inolako eskubiderik usategietan, ez zen behinpehin deusetan sartzen. Zer dela eta aldatu ziren gauzak? Eskopetazaleak eta sarezoak eremu berean aritzen dira, eta ehiza mota batek bertzea oztopatu egiten du. Tiroz ehizatzen duenak, ahal diren ehiza bide guztiak tirotarako nahi ditu, sarezo ehizak lekua nahiz denbora mugatzen dio.

Sarezaleak, zenbat eta isiltasun haundiagoa, hobe.

Ez da harritzekoa sarezo eta eskopetazko ehizturiaren arteko harremanen historia gatazkatsu samarra bilakatu izatea batzuetan. Duela hirurogei urte Pedro Arribillagak dionez, urtero bazen zaurituren bat, ez noski batak bertzea tirokatzen zuelako, arauak ez zituztelako errespetatzen baizik. Eta sarezoak Udalarengana jo zuten, bere laguntza eta zaintza eskatuz. Orain dela 58 urte, 1.932.enean sartu zen Udala usategietako aferetan zuzenean, araudi eta legedi bat paratuz, usazale eta eskopetazaleak elkarrekin ongi konpon zitezten.

Usategien izena eta turismoa


Ehiza mota hau hain bitxia deneguz, ikusle aunitz erakartzen du, orain eta lehen. Ehiztariez gainera, jende pila hurbiltzen da Usategietara uso denboraldian, larunbat eta igandez batez ere. Jai egunetan, adin guztietako ehunka jendek estaltzen ditu Iarrendiko bide, bidaxka eta inguruak, Lapurdi, Nafarroa eta urrunagotik ere etorriak. Egun nabaria, urriaren hirugarren igandea izaten da; goizez usategi inguruak eta arratsaldez herriko plaza bisitariz gainezka jartzen delarik: "Usategietako igandea" da.

PELLO APEZETXEA

Artzainak eta zakurrak; lankideak eta lagunak

Beti erran izan da animalien artetik zakurra dela gizakien lagunik haundiena. Gizakien artean lagunik ez eta lagun bezala zakurrak auke-ratzen dituztenak ere badira. Apaindegira eram-an, goxokiekin ase, egunean zehar aldi pare batez pasiatu; orduak pasatzen dituzte txakurra-ren kapritxoak betetzen. Zenbait urrutirago ere joan izan dira, harreman seksualak mantentze-raino. Halere, zakurra eta artzaiaren artean sor-tzen den harremana izanen da segurenik estuena, gogoz edo gogoaren kontra, uda gorrian edo negu beltzean, jan eta lanorduetan, momentu on eta txarretan; ia egun osoa elkarrekin bizitzera behartuak baitira. Eta badakizue, momentu honetan jende aunitz izaten da ondoan, txarretan berriz, lagunak bakarrik gelditzen dira. Igantzi-ko XI. artzaitxakur lehiaketa dela eta, bertara hurbildu gara artzainekin egonalditxo bat egite-ra, artzainen eritziak ezagutzera. Hona beraiek erran digutena.

PATXI LARRETXEA



Patxi Etxeberria,
31 urte, Amaiurkoa

**“Hezitzeko zakur
emea nahixeago dut.
Ez dakit, iduritzen
zait aisaxeago
manejatzen ote den”**

**Nafarroako txapelke-
ta hamalau aldiz iraba-
zia, Euskal Herrikoa hiru
aldiz eta exhibizio ugari.**

“16 urterekin hasi nin-tzen zakur txapelketetan eta hiru zakur izan ditut horretarako; Labri, Pintxe eta Lagun. Etxean aunitz. Zakur guziak diferenteak izaten dira. Pena handia sentitzen duzu zakur bat hiltzen denean baina etsitu behar duzu. Egunero egu-nero ibiliz gero zakurrak ongi enteitzen zaitu. Na-

hiago dut ardiekin lana egi-teko bortz artzai baino zakur bat, ongi ikasia bada noski. Jakin behar duzu za-kurraren lana estimatzen. Egun batean lana ongi egin badu zakur batek eta etxe-ra gan eta jotzen baduzu, hura sentituko zaio. Zaku-rrak gehien estimatzen duena karizia da, jana bai-no biziki gehiago!!! “



**Jean Miura,
Itsasoarra, Iparraldekoa**

**“Arditan ibiltzeko
aisa nahiago dut
xakur bat bi gizon
baino”**

**Aurtengo Azkaingo
zakur txapelketako irabazlea.**

“Hamar urte ditut xakurrarekin ibiltzen naizela baina gauza on gutti lortu dut. Ezta errez xapelketak irabaztea. Nik bost xakur izan ditut bizian. Ni ogibidez artzaina naiz eta egun osoan ardiekin ibil-

tzen baina ez dut xakurrarik prestatzen xapelketarako. Eguneroko lanean erakusten saiatu eta ongi ateratzen bada ongi eta bertzela deus ez. Nik xakurrak anitz maitatzen ditut, ez da sinisten ahal zenbateko pena hartzen den xakur bat hiltzen denean. Lagun haundia bihurtzen da azkenerako”.



**Fermin Sein,
Oiertzuarra**

**“Txakurrak lana
hobekiago egiten du
artzai bakar bat
badu, haren hizkera
eta izateko erara
ohitzen baita”**

**Oiertzungo Karrika
auzoko lehiaketaren irabazlea.**

artzai baten irabazlea.

“Fabrika batetan egiten diat lan eta gero asteburutan “hobbi” bezala duk niretzako artzai izatea. Etxean beti izan dizkiagu ardiak, gurasoak baserritarrak dituk eta orain ere badizkiagu 100en bat ardi. Gure auzoan afizio haundia sortu duk, gazte askok bazeukak lanetik aparte

artaldetxoa eta denak hor ibiltzen gaituk geure txakurrarekin. Txakurrak nahiago dik beti artzai batekin ibili, hartaraten duk, bere hizkerara ohitu. Gure etxean anaiak ere bazeukak txakur bat eta hark ez zia niri batere kasorik egingo. Badakik, batek genio txarragoa dik edo diferentea duk eta...”.



**Joxe Urien,
29 urte,
Abadiñokoa
(Araba)**

**“Niri, hezitzerakoan,
txakur arra edo emea
berdin-berdin zait.
Baina nahiago dut
emea horrela arraza
nik neuk kontrolatzen
dudalako”**

**Aurtengo Igantziko
lehiaketaren irabazlea. 4
bider irabazia du Bizkai-
ko Txapelketa ospetsua
eta makinatxo bat lehia-
keta.**

“14 urterekin hasi nintzen ni txapelketan parte hartzen. Bost txakur izan dira txapelketetan ibili di-

tudanak, oraingo hau gaztea da eta lehen aldiz hartzen du parte txapelketa batetan. Lanbidez ez naiz artzaia baino arratsaldez baserrian egiten dut lan. Aurrekoetatik heldu zait afizioa. Gurasoak ere artzaiak ziren baina ez ziren txapelketetan ibiltzen. Probatarako espreski prestatu txakurra? Ez. Txakurrak lehenik ofizioa ongi ikasi behar du ardietan eta gero beti gehiago esijitu behar diozu mejoatzen joateko. Bi edo hiru egun lehenago halako probatxo bat eginarazten diozu zeuk

konfiantza hartzeko bakarrik, ez txakurrak gehiago ikasiko duelakoz. Txakurra eta artzaiaren artean sortzen da harremana? kariño haundia hartzen diozu txakurrari. Beti zeurekin izaten duzu ardietan zabiltzanean eta baserriko lanetan ari zarenean ere bai. Harreman haundia sortzen da txakurrarekin eta jakin behar duzu saritu behar denean saritzen eta zigortu behar denean egiten ere bai. Hori da bizitzan dena bezala; batzutan ongi konpontzen zara eta bestetan okerrago.

Krossa

X. Lizuniagarako igoera Krossa burutuko da urriaren hirugarren igandean

Hobetu gabe aurkitzen da 1982an eginiko Pello Garinen 16.13ko marka

ROMAN HARRIBILAGA

Hobetu gabe aurkitzen da 1982an eginiko Pello Garinen 16.13ko marka Datorren urriaren 21ean, igandea, adindu, senior, gazte eta emakumezko mailei zuzenduriko X. Lizuniagarako Igoera Krossa, Gure Txokoa elkarteko atletismo sailaren antolaketarekin.

Irteera, goizeko 10etan eginen da, Eztegara frontoiaren ondoan; horretarako, izenak ordu erdi bat lehenago emanen direlarik Jamotenean. Lizuniaga gaineraino burutu beharreko 5 kilometrotako ibilaldiaren ezaugarrietaz, gogorregi ez den maldan gora dela, bihurturik eta zola egotira onean aurkitzen dela esan daiteke.

Lasterkari ezagunak

Bere bederatzi urtetako historian barrera, Lizuniagarako Igoerak ondorengo denboraldietan nabarmendu eta ospe handia lortu duten atleta bikainak ezagutu ditu. Era honetan, Garin anaiak, Pellok 1982an egindako 16.13ko marka hobetu gabe diraularik, Luis Yerga, Manolo Otero eta Jesus Mari Calvo lesakarra binako garaipekin, baita iazko irabazlea den Jose Ramon Galarraga ere, besteak beste.

Emakumezkoetan berriz, gaur egun atletismoan hain ezaguna den Begoña Zuñiga, Lizuniagarako Igoeran hiru aldiz irabazle izan dena, berari dagokiolarik 1987an eginiko 20.47ko marka ere; Inma Gartzia, Maria Arantzazu Iratzu, Catherine Fourcade, Mari Karmen Haritzegi eta Julia Ortega ere, aurkitzen dira irabazleen artean.

Ibilaldia


Eskualdeko mendi iharduerak

Eskualdeko Kirol Bartzordeak eta Baztan-Bida-soako mendi taldeak, zenbait ekintza antolatu ditu. Horrela, hilaren 27 eta 28an Ani mendia batera igoko dute.

Irteera, Urriaren 27an izango da Beran arratsaldeko 4etan, beste mendizaleak, Doneztebe, Elizondo eta Iruñean (Leitzarangoak) bilduko dituzte, Belaguako aterpean lo egin, 28an Ani mendira iritsi ahal izateko. Izen emateak eskualdeko kirol bulegoetan egin daiteke kirol koordinatzaileei zuzenduz edota mendi taldeetan Urriaren 16a baino lehenago.

Elizondon Mendizale Eguna Urriaren 25ean

Aurtengoan, Baztan izan da aukeratutako zonaldea. Ibilaldia Elizondotik abiatuko da goizeko 8,30etan. Alkurkuntz eta Otsondoko gaina igoaz (autobusean bueltatuko da) eta gero bazkaria izango da Elizondon. Izen emateko epea Urriaren 10ean bukatzen da.



Jesus Mari Calvo, lesakar korrikalaria

Esquisaroi

jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO



EUSKALDUNA

JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

BERA



JATETXEA

Tfnoa.: 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Lesakako Beti Gaztek pattal hasi du denboraldia

Beti Gazte futbol taldea kaxkar xamar hasi da aurtengo denboraldian, Gipuzkoako Preferente mailan.

Hau idazterakoan, lau partidu jokatu ondoren puntu bakarra daukate.

Taldearen gaztetasuna (20 urtetako media) eta esperientzi eza izan daitezke hasera txar honen arrazoiak.



JUAN LARREGUI

Klase guzietako nekazal tresneria

Santiago 10, Tfnoa: 58 08 98 - ELIZONDO

MOTOTERRAK

- HUSQVARNA
- STHIL
- JONSEREDS

DESBROZADORAK

- STHIL
- KAWASAKI
- HUSQVARNA

ORDEÑADORAK

- ALFA-LAVAL
- WESFALIA
- CEREZO

SEGADORAK

- AEBI
- ALFA
- AGRIA
- RAPID

MOTOAK

- Berriak eta bigarren eskukoak
- ENDURO
- CROSS
- TRIAL

BERTZELAKOAK

- VICON markako ezaguneko ongarriztatzaileak eta Disko Ebakitzzaileak


Edaten duguna kontrolatu

Edari batek duen alkohola, duen graduen arabera kalkulatu da.

Ardo mota batek 12 gradu dituela erraten dugunean, ardo horren litro (1.000 zentimetro kubiko) bakoitzeko % 12 alkohola dela erran nahi du honek. Hots, litro ardo horretan 120 z. k. alkohol daudela.

Horrela bada, pertsona batek ez luke sekula berak pisatzen duena baino zentimetro kubiko alkohol gehiago edan beharko. Bertze era batetara erranda, 70 kilo pisatzen dituen pertsona batek ez luke egunean 70 z. k. alkohol baino gehiago edan beharko.

Oso garantzitsua da gure gorputzak " jasan " ahal duena ezagutzea ezusteko txarrik ez izateko.



Nafarroako OSASUN MENTALEKO TALDEA



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- ✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN

GAIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

- ✓ Mediku naturista
- ✓ Reflejoterapia
- ✓ Dieta mota guztiak
- ✓ Kosmetika tratantea
- ✓ Alternatiba osasungarria —kimikarik gabea—

Zatoz konfiantza osoarekin

Bittiria, 6 Tfnoa: 637410 - LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ARO BERRIAREN ATARIAN

Horoskopoa

Libra,... "balantza"

LIBRA. zeinua, Babilonian, bizitza eta heriotzaren epai-ketarekin erlazionatzen zuten zeinu hau. Egipton uztaren pisatzea eta zergen ordainketa librako ilargi betearekin egiten ziren. Zeinu honek ez du tradizio luzerik, hauxe omen da azkeneko asmatu zuten zeinua, hamabietatik konstelaziorik ttikiena daukalarik. Sinboloa ere, balantza, gizonaren asmakizuna da.

Libra arketipoa

Aire zeinua denez, batez ere, izate mentalekoa da. Erreflexiorako erraztasuna dauka eta kontzeptuen bidez bere mundua eratzen du. Zeinu kardinala da baita eta ekintzetara bultzatuta dago, baina ez Aries bezala, zuzenean eta berehala, justizia eta orekarekin baizik. Maiz aski libratarrak arrunt indezisoak bailiran agertzen dira, behar bada errealitatearen



konplexutasuna nabaritzen dutelako eta alderdi bat laguntzea, bertzeari kalte

egitea dela dakitelako. Libra da elkartzearen zeinua; ezkontzarekin ere er-

lazionatzen da. Libratarrak goiz aski sumatzen dute bikote beharra eta batzutan erlazio batean sartzen dira ongi prestatuak egon gabe.

Ekinozioa

Irailaren 23an, gaua eguna bezain luzea da, eta gero eta luzeagoa egiten joanen da. Gaua eta eguna berdinak diren momentu horretan hasten da libra. Kanpoak ia uzta guztiak eman ditu, lurra hoztu da, iratzea gorritu da, pasako hegaztiak azaltzen dira... Ariestik Virgora zodiako-ko prozesuaren lehen erdia osatu da, atal hau indibiduala eta materiala da. Libraren erdia, kolektiboa eta espirituala. Librak, bere edertasun eta harmoniarekin, saiatu behar du bi zatia elkarrenganatzeko.

Libratarrak: aunitz urtez eta suete on!

FERMIN ALTZUGUREN

**BEINTZAKO
OSTATUA**

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88
31780 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

PIZZIO OSTATUA

Tfnoa.: 63 07 88
Altzate - BERA

ZAROS

Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

Etxebizitzak

•**Beran pisuak** alkilatzen dira Laruntxoko baserrian. Tfnoa. 630217

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

•**Lesakan pisu bat** alkilatzen dut; garaje eta baratzearekin eta guztiz mobleztatua. 35.000pza. Tfnoa: 450054

•**Etxe bat** mobleztatua, terraza eta garajearekin alkilatzen dut. Tfnoa: 450054


Lana

•**Neska euskaldun** batek lan eginen luke Donezteben edozein laneta eta goizez, igandetan ezik, Tfnoa: 450770

•**Gitarra klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630217

•**Neska euskaldun bat behar da Iruñean** haur bat zaintzen lan egiteko. Lanpostu fijo. Deitu 239274 tfnora.

•**22 urteko neska es-**



keintzen da edozein lanetarako. Deitu 637095 tfnora.

•**Elizondon**, neska bat eskeintzen da haurrak zaintzeko. Tfnoa: 580827. M. Anjeles-etaz galdetu.

Salerosketak

•**Akumulatzaile elektriko** bat saltzen dut, programadorearekin. Tfnoa: 630484.

•**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

•**Sukalde bat**, ekonomika, Lakuntza-7 salgai. Ia-ia berria. 25.000 kilokaloria orduko. Deitu 637229 tfnora.

•**Pigini** markako akordeoi bat daukat salgai. 90 bajo eta 5 erregistro ditu. Deitu 637818 tfnora.

•**1.700 litroko zistera** berria saldu nahi dut. Trakzioduna eta merkea. Deitu Zigako 581023 tfnora.

•**Bigarren eskuko elektrogailuak** eta era guzietako mobleak erosi-ko nituzke. Etxetik hartuko nituzke eta eskutara ordaindu. Diskrezio osoa. Tfnoa: 450054

•**Collie zakurkumeak** saltzen dituz. 25.000 pza. Tfnoa: 450054

•**Mastin, Boxer** edo Collie zakur bat nahi nuke dohainik. Tfnoa:453042

Toribio Arizkun

•**Akordeoi kromatiko** bat saltzen da. 120 bajo, 13 erregistro eskubian eta 7 ezkerrean. Soprani. 943 - 675762 tfnoa.

•**Erreemolke bat**, ehizako zakurrak ibiltzeko balio duena salgai. Marka homologatua. 635004

Denetarik

•**8 zakurkume** Pastor Aleman arrazakoak eta hilabetekoak emanen nituzke. Nahi dituenak dei dezala 635141 tfnoa.

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

•**Beran, negutegiak** jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pza. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054

Harremanak

•**Aupa Lutxi**, ez zaitez tristetu, gogor egin eta lortuko duzu. Animo! (J.J.) Gora gu ta gutarrak! I.K.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



	Geriza	▼	Labeak	▼	Azkar!	▼	Urte
	Etorburua, jatorria		●		Ipar. nobleak		honetan
	▶		▼		▼		▼
	Zira eman	▶					
	●						
	▶						
●	▼		Multiko- pista	▶			Kontso- nantea
Hariz lotu		Sufrea	Deitura				Erritmo mu- gimendua
▶		▼	▼	Altxatu	▶		▼
				Antzinako Persia			
Röntgen	▶	Toka, ziokeen	▶	▼			
Erbestean		Ohorezko hitzematea					
▶		▼					
Zangoaren atala	▶				Agiria	▶	
Noka, du					Dardara		
▶							
			Naizen honek	▶	▼		Kontsonan- te bikoitza
			Ipar. Biz- kor. trebe				Ebakidura
Sindikatu abertzalea	▶		▼	Potasioa	▶	Gip. Zain	▶
Baldin- tzetan				Ikusmen organo		Iodoa	▼
▶		Erreka handia	▶	▼			
		Gaiso					500
							Gor
●	●	▶	▼			●	▶
	49					Rubidioa	▼
▶	▼						
Lore	▶				Itzulia, Jira	▶	
							Bokala
							▼

● Ehiza hegaztiak

ENBIDO

LURRAREN EGUNA

BERA

1990eko urriak 28

